



ZINEUSKADI 2024

“Fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta sorkuntza-dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzen deialdia”.

“Goya eta Awards Season kanpainetarako fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta laburren eta sorkuntza-dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzen deialdiaren eranskina”.



ZINEUSKADI elkarteak ikus-entzunezko proiektuen sustapenerako eta publizitaterako laguntza arautzen du, lan horiek Euskal Autonomia Erkidegoan eta nazioartean zabaltzeko eta komertzializatzeko helburuarekin. Gero eta globalizatuago dagoen kultur-merkatu honetan, Euskadiren kultur-identitatearen presentzia eta ezagutza handiagoa babestea da xedea.

1.- Helburua

2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte Euskal Autonomia Erkidegoko zinema aretoetan estreinatu diren fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeen eta sorkuntza-dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzak emateko oinarriak ezartzea da deialdi honen helburua. **2024ko** ekitaldian zehar emango dira laguntza horiek.

Horretarako, zinemarako film luzetat hartuko da zinema-aretoetan ustiatzera bideratuta dagoen hirurogei minutu edo gehiagoko ikus-entzunezko lana.

2.- Onuradunak

Laguntza hau jaso ahal izango dute Europar Batasuneko edo Europako Ereku Ekonomikoko kide den estaturen batean bizi diren pertsona pribatu independenteek, betiere laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan establezimendu iraunkorra irekitzeko konpromisoa hartzen badute, eta Kultura eta Kirol Ministerioko Ikus-entzunezkoen Arteetako eta Zinematografiako Institutuko (ICAA, gaztelaniaz) zinematografiako eta ikus-entzunezkoetako enpresen administrazioko erregistroan izenda emanda egon beharko dute ikus-entzunezkoen ekoizle edo banatzaile gisa.

Enpresak gutxienez bi urteko ikus-entzunezkoen edo zinemaren arloko jarduera izan beharko du edo bertako kideek behar bezala bermatutako ibilbide profesionala izan beharko dute eskaerataren aurreko hiru urteetan.

Eskatzaileak, film luzean duen jarduera finantza arlokoa baino ez bada, ezingo du izan oinarri erregulatzaile hauetan aurreikusten diren dirulaguntzen hartzailea.

Pertsona pribatu independentetzat hartuko da ikus-entzunezko komunikazio-/hedapen-zerbitzuen hornitzaile baten edo telebista-kanal pribatuaren titular baten eragin menderatzailerik ez duen pertsona fisiko edo juridikoa, ez eta, bere aldetik, eragin menderatzailerik duena ere, edozein kasutan, jabetza, finantza-partaidetza edo kasuan kasuko administrazio- edo kudeaketa-organoen erabakiak hartzea nolabait baldintzatzeko ahalmena duelako.

Pertsona batek establezimendu iraunkor bidez jarduten duen erabakitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Ezin izango dute laguntzarik jaso diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik dutenek ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko



4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-bereizkeriagatik sortutakoak barne.

3.-Laguntzen helmuga, zenbatekoa eta muga

Laguntza jasoko duen ikus-entzunezko ekoizpenaren produkzio-kostuak berrikusteko eta egiaztatzeko auditoretza-txosten berezia 12.01 (CRI eta kopiak) eta 12.02 (publizitatea) ataletan ageri diren gastuak ordaintzera daude bideratuta laguntzak. Txosten hau Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean izenda eman dauden auditoreek egin behar dute.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen guztizko gehienekoa ehun eta berrogeita hamar mila eurokoa da (150.000 €). Laguntzetara bideratutako guztizko kopuruaren % 30 (45.000 euro) gordeko da hautatutako ekoizpenen artean jatorrizko hizkuntza euskara duten lanen artean banatzeko.

1.- Ematen diren laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira eta honela banatuko dira:

- a) Laguntzen zenbateko osoaren % 25 (37.500 euro) fikziozko eta animaziozko film luzeetan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gutxienez % 50 lortzen duten eskatzaileen artean banatuko da, zati berdinetan. Sorkuntzazko dokumentalen kasuan, lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 35 eskuratu beharko dute laguntza hori eskuratzeko.
- b) Laguntzen zenbateko osoaren gainerako % 75a, hautaketa- eta balorazio-irizpideen arabera, aurreko paragrafoan ezarritako gutxieneko ehunekoak gainditzen dituzten eskatzaileen artean banatuko da, balorazio horretatik ateratako ordenaren eta puntuazioaren arabera, aurrez ikusitako aurrekontua agortu arte.

Fase horretan, jatorrizko hizkuntza euskara duten ekoizpenentzat gordetako kopurua banatuko da. Horretarako, hautaketa eta balorazio-irizpideak ezarri ostean bakoitzak lortu duen puntuazioa izango da kontuan.

2.- Laguntza egindako gastuen eta sustapenerako eta publiziterako ikuskatutakoen % 50ekoa izan daiteke, eta gehieneko kopurua **35.000 eurokoa** izango da fikziozko eta animaziozko film luzeen kasuan, eta **12.000 eurokoa** sormen-dokumentalen kasuan, euskarazko ekoizpenetan izan ezik, kasu horietan kopuru hori gaindi dezakete. Laguntza publikoen zenbatekoak (Deialdi honen kargura ematen direnak barne) ezingo du inolaz ere egindako gastuaren eta sustapenean eta publizitatean ikuskatutakoaren % 50 gainditu.

3.- Koproduzioen kasuan, % 50eko ehuneko ekoizpen enpresa eskatzaileen ekarpenari ezarriko zaio, eta enpresa horrek ikus-entzunezko ekoizpenaren % 20aren titulartasuna izan beharko du gutxienez.

Enpresen talde baten (adibidez, EITak) edo enpresen elkartze baten (adibidez, sozietate mugatuak) bidez gauzatutako koproduzioen kasuan, eskatzaile gisa onartuko dira horiek. EITari edo sozietate mugatuari egiten dion ekarpena zein den egiaztatu beharko du ekoiztetxeak. Era berean, EITa desegitean sortutako ikus-entzunezko lanaren % 20 edo



gehiago bere jabetzakoa izango dela bermatu beharko du.

Merkataritza Erregistroko inskripzioaren arabera ekoizpen-jarduerak burutzeko interes soziala duten Ekonomia Intereseko Taldeek laguntzak jaso ditzakete, ekoiztetxe independenteen modu berean, betiere 2. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Aurreko paragrafoan jasotako baldintzak Ekonomia Intereseko Taldeko kidea den ekoizpen-enpresa independenteari dagozkio, eskaeran izendatzen denari. Enpresa horrek ere bete beharko ditu 2. artikuluan eskatzaileari eskatzen zaizkion baldintzak. EITa osatzen duten ekoiztetxeek EITa desegin ondoren ere partaidetza-kuota berdinak mantenduko dituztela bermatu behar du EITak, zinpeko adierazpenaren bidez.

Halaber, eranskin berri bat gehitu da, parte hartzen duten ekoiztetxe guztiek (koproduzioen kasuetan zein EITen kasuetan) zinpeko adierazpen bat aurkeztu dezaten. Bertan, laguntza honen konkurrentzia ezagutzen dutela ziurtatu behar dute: duen jabetzaren % bera jarriko du bakoitzak.

4.- Ezingo dute laguntzarik jaso abenduaren 28ko Zinemaren 55/2007 Legearen 9.2 artikuluan "X" gisa kalifikatzen diren filmek.

4.- Eskaerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, **2024ko apirilaren 15etik 2024ko maiatzaren 14ra**.

Eskaerak I. eranskinean ageri diren instantzia-ereduen bitartez egingo dira eta bertan zehaztutako dokumentazioa erantsiko da, baita I. II. eta III. eranskinak ere, beteta. Eskaera horiek ZINEUSKADIren Zuzendaritzari igorri beharko zaizkio fisikoki edo posta elektronikoz: info@zineuskadi.eu

ZINEUSKADI elkarte
TABAKALERA eraikina (3. solairua)
Andre zigarrogileak plaza 1
20012 Donostia

Eskaerak aurkezteak deialdi honetako oinarriak ezartzen dituzten baldintzak modu formalean eta espresuki onartzea dakar berekin.

5.- Aurkeztutako eskaeran egon daitezkeen akatsak konpontzea

Laguntza-eskaera baldintza guztietan beteta ez balego, ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikoek eskatzaileari ikusitako akatsak konpontzeko eskatuko diote. Errekerimendu hori jakinarazpen-helburuetarako eskatzaileak emandako posta elektronikora egingo da. Aipatutako helbideak erabilgarri egon beharko du prozesu osoan. 10 egunetan eskakizunari erantzuten ez bazaio eta eskatutakoa zuzentzen ez bada, proiektuaren aurkezpenari uko egingo zaio.

6.- Balorazio Batzordea



Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzordea eratuko da.

Kide hauek osatuko dute Batzordea:

- a) ZINEUSKADIko presidentea: Eusko Jaurlaritzako Kultur Sustapenerako Zuzendaria edo haren ordezkaria.
- b) ZINEUSKADIko lantaldeko pertsona bat

Izendatutako batzordeko aditu-profesionalek zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio-arrazoen eraginpean ez daudela adierazteko; hau da, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko ez den beste helburu baterako eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa ez dutela erabiliko adierazteko eta, ebazpena eman ondoren, deialdiko dokumentazio guztia organo kudeatzaileari itzuliko diotela adierazteko.

Batzorde horrek, ezarritako esleipen-irizpideen arabera, diru-laguntza emateko proposamena adostu eta ZINEUSKADI elkarteko Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dio.

Halaber, Batzordeak proiektu bat bera ere onartzen ez duen edo gehieneko kopuru ekonomikoa erabiltzen ez duen proposamena aurkez dezake, kalitate falta dela eta edo deialdira aurkezteko egokitasun falta adierazten duen beste arrazoi bat dela eta.

Balorazio-batzordeak behar dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskaeren ebaluazio egokia egin ahal izateko.

7.- Esleipenerako irizpideak eta kuantifikazioa

Balorazio-batzordeak jasotako eskaerak aztertuko ditu eta jarraian aipatuko ditugun irizpideen eta baremoen arabera baloratuko du alderdi bakoitza.

KONTZEPTUA	PUNTUAK
GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	15
- ZUZENDARITZA	2,5
- GIDOIA	2,5
- EKOIZPEN EXEKUTIBOA	2,5
- GAINERAKO POSTUAK	2,5
EUSKARAZ FILMATZEA	10
SUSTAPENEAN ETA PUBLIZITATEAN EGINDAKO AHALEGIN	50
ENPRESAKO BALIABIDEAK ETA GIZA BALIABIDEAK	25
GUZTIRA	100

IRIZPIDE SUBJEKTIBOEN BIDEZ ESLEITU DAITEZKEEN PUNTUAK

- a) Proiektuan genero-ikuspegia txertatzeagatik: 15 puntu gehienez, honela banatuta:



- i. Zuzendaritza (2.5 puntu)
- ii. Gidoia (2.5 puntu)
- iii. Ekoizpen exekutiboa (2.5 puntu)
- iv. Eranskinean zerrendatutako gainerako postuak (2.5 puntu)

b) Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz izatea: 10 puntu gehienez.

IRIZPIDE OBJEKTIBOEN BIDEZ ESLEITU DAITEZKEEN PUNTUAK

- a) Sustapenean eta publizitatean egindako ahalegina: film luzea prestatzearen kostuarekin lotuta ekoizpen-enpresak sustapenean eta publizitatean egindako eta auditoria-txostenean modu ofizialean aitortutako gastua: 50 puntu gehienez.
- b) Enpresako baliabideak eta giza baliabideak: 25 gehienez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo finkatuta dauden pertsona fisikoek edo juridikoek emandako sormen-, arte- eta teknika-baliabideak kontratatzeke inbertsioaren ehunekoaren arabera esleituko dira, proiektua egiteko guztizko aurrekontuari dagokionez, betiere inbertsio-ehuneko hori produkzioaren aurrekontuaren % 40tik gorakoa eta % 80tik beherakoa bada.

8.- Bateragarritasuna

Deialdi honetan esleitutako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde batek helburu berdinerako emandako beste laguntzekin, betiere lagundutako jarduerak gehiegizko finantzaziorik ez badu. Hori gertatuz gero, laguntzaren kopurua murriztuko da dagokion mugaraino, gehiegizko finantzaketa eman ez dadin.

Aurrekoarekin bat etorritik, deialdi honen bidez laguntzak jasotzen dituztenek ZINEUSKADIrri eman beharko diote helburu berarekin jasotako beste edozein laguntzaren berri, laguntza hau baino geroago jaso arren.

9.- Emateko akordioa

1.- Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratu ostean, laguntzak esleitzeko txostena eta proposamena igorriko dio ZINEUSKADI Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari, Elkarteko presidentek laguntzak esleitzea onar dezan.

2.- Deialdi honetako laguntzak emateko akordioa ZINEUSKADiren webgunean argitaratuko da nahi dutenek horren berri izan dezaten eta mezu elektronikoz jakinaraziko zaie laguntzak eskatu dituztenei.

10.- Laguntzaren ordainketa

Ordainketa bakarra egingo da, pertsona onuradunen izenean. Laguntza eman eta onuradunak onartu ondoren tramitatuko da ordainketa.



Deialdi honek arautzen dituen laguntzen pertsona onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen den datatik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epean pertsona onuradunek espresuki laguntzari uko egingo ez balio, onartuta geratu dela ulertuko da.
- b) Lanak edo ikus-entzunezko ekoiztetxeak ZINEUSKADI Elkartearen bidez Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza bat jaso duela adieraztea, laguntza eman ondoren egindako edozein euskarriren kopia guztietan.
- c) Euskadiko Filmategia Fundazioan Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren izenean eta jabetzan honako hauek gordailutu izana ziurtatzea: laborategiko kopia berri bat, baldintza ezin hobeetan, zinema-aretoetan estreinatzeko urratsean eta formatuan, produkzioaren jatorrizko bertsioan; estreinatutako bertsio komertzial bakoitzaren DVD bat (ekoiztiko balitz); elkarrizketen zerrenda, jatorrizko bertsioan eta bikoizketako hizkuntza bakoitzean; sei gida, sei kartel eta sei argazki; eta lanaren sustapenerako beste edozein dokumentu, Euskadiko filmen ondarearen kontserbaziorako eta hedapenerako interesgarria izango dena eta helburu komertzialetarako erabiliko ez dena.

Nolanahi ere, lanen deposituak hurrengo emanaldi publikoa eta ondorengo 30 egunen aurretik egingo dira.
- d) ISAN Erregistroaren Iberoamerikako Agentzian (ARIBSAN) ISANa erregistratzeko izapideak bete direla dioen agiria.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren mendeko laguntzak eta diru-laguntzak jasotzearekin lotuta ezarrita dagoen beste edozein betebeharrak edo eginkizun.

11.- Ez betetzeak

1.- Ez bete izanaren kasuak izango dira hauek:

- a) Diru-laguntza lortu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsututa edo lortzea eragotziko zuketena haiek ezkutatuta.
- b) Deialdi honetan aurrez ikusitakoekiko ezberdinak diren jardueretarako jasotako laguntzak erabat edo partzialki aplikatzea.
- c) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak edo, dagokionean, emateko ekitaldian ezarritakoak ez betetzea.
- d) Dagokionean, laguntzaren likidazio-akordioan horretarako ezarritako epean zenbatekoa ez itzultzea.
- e) Antzeko laguntzak jaso izanari buruzko informaziorik ez ematea.



- f) Beste edozein xedapenetan izaera orokorrarekin ezarrita dagoen eta derrigor bete beharra dagoen beste edozein.

12.- Itzultzea

Onuradunak laguntza jaso duen proiektua egin dela behar bezala justifikatzen ez badu, edo aurreko ataleko kasuren bat betetzen ez badu, emandako laguntza osoa edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio eta laguntza ordaindu den unetik itzuli den egunera arte izan diren atzerapenei dagokien interesa, proportzionaltasun-irizpidearen arabera.

XEDAPEN OSAGARRIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Jabetza Publikoko eta Sormeneko Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategiei buruzko 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, deialdi hau izapidetzeko garaian jasotako datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dira (datu horien tratamendua eta argitalpena baimendu dute bertan parte hartzen dutenek). Fitxategi horren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta harekin lotutako beste edozein administrazioko espediente edo prozedura kudeatzea eta deialdian parte hartu duten pertsonen inguruko informazioa ematea. ZINEUSKADI elkarteak da fitxategi horren arduraduna. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dira ZINEUSKADIREN aurrean. Horretarako, helbide honetara jo beharko da:

ZINEUSKADI elkarteak

TABAKALERA eraikina (3. solairua)
Andre zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia

Gainera, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei uzteko baimena ematen dute deialdiaren helburuarekin bat datozen helburuetarako. Gainera, ZINEUSKADI elkarteari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla egiaztatzeko.



I. ERANSKIN BEREZIA. 2024 ETA 2025EKO GOYA SARIEN KANPAINA

Halaber, egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten ekoiztetxeek (gutxienez lanaren jabetzaren % 20 dutenak) egindako ikus-entzunezko ekoizpenen sustapenari eta publizitateari ematen zaion laguntza erregulatzen du ZINEUSKADI Elkarteak, Goya sarietarako ibilbidean.

a. **Onuradunak.** 2. artikuluan jasotakoa betetzen duten eta honakoak dituzten pertsonak aurkeztu daitezke:

- 2025eko Goya Sarietarako hautagaitzen lehenengo fasean saria jasotzeko aukera duten fikziozko edo animaziozko film luzeak, film laburrak eta sormen-dokumentalak. Dokumentalen, animaziozko filmen eta film laburren kasuan, Akademiak haren webgunean modu ofizialean argitaratutako hautagai posibleen barruan botazioen lehenengo fasean dauden proiektuak onartuko dira (dokumental onena, animaziozko film onena eta film labur onena). Ez da onartuko aipatutako webgunean dokumental, animaziozko film luze edo film labur onenen hautagaitzen artean agertzen ez diren kategoria honetako beste edozein lanen gasturik.
- 2024ko Goya Sarietarako hautagaitzen bigarren fasean saria jasotzeko aukera duten fikziozko edo animaziozko film luzeak, film laburrak eta sormen-dokumentalak.

Laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da Akademian proiektzio bat erreserbatu izana.

Horretarako, zinemarako film luzetzat hartuko dira zinema-aretoetan ustiatzera bideratutako hirurogei minutu edo gehiagoko ikus-entzunezko lanak; eta hirurogei minututik beherakoak izango dira film laburrak.

b. Aurrekontua

15.000 euro (hamabost mila euro) bideratuko dira Goya Sarietarako ibilbidean sustapena egitera, honela banatuta:

- 4.000 € (lau mila euro) 2025eko Goya Sarietarako hautagaitzaren lehenengo fasean dauden proiektuentzat.
- 3.000 € (hiru mila euro) 2024ko Goya Sarietarako hautagaitzaren bigarren fasean dauden proiektuentzat.
- 8.000 € (zortzi mila euro) Zineuskadik izendapenen berri emateko diseinatutako sustapen-kanpainarako: elkarrizketak izendatuei, haien saretarako; newsletterra; eta kanpo-kontratazioa hainbat hedabidetan.

c. Onartutako gastua eta onartutako gehienekoa.

Laguntza honetarako gastua izango da:



- Akademian egindako proiektioetako bat. Akademiako proiektioaren faktura eta ordainketa aurkeztu behar dira.
- Akademiako kideei egindako bidalketen gastuak (gehienez 400 €).
- 2024ko Goya Sarien bigarren fasean dauden proiektuen kasuan, kategoria hauetako izendapenen gastuak onartuko dira: fikziozko film luzerik, dokumentalik edo animaziorik onena; fikziozko film laburrik, dokumentalik edo animaziorik onena; zuzendaritzarik onena; aktore nagusirik onena; bigarren mailako aktorerik onena; aktore berririk onena; eta jatorrizko zein egokitutako gidoirik onena.

Honako hauek izango dira onartutako gehieneko gastuak:

- 2025eko Goya Sarietako lehenengo eta/edo bigarren fasean dauden fikziozko film luzeen proiektuetarako ez da onartuko 800 €-tik gorako gasturik.
- 2025eko Goya Sarietako lehenengo eta/edo bigarren fasean dauden film dokumental edo animaziozko film luzeen edo laburren proiektuetarako ez da onartuko 700 €-tik gorako gasturik.

d. Prozedura

d1. Lehenengo fasean:

- Oinarriak argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da eskaerak aurkezteko epea, eta Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren lehen txandako bozketen azken egunean amaituko da, bozketen emaitzak argitaratu ondoren.
- info@zineuskadi.eu helbidera bidali behar dira eskaerak, honako dokumentuak atxikita:
 - Fakturen kopia eta ordainketen ziurtagiriak.
 - Proiektua fase honetan hautatu dutela egiaztatzeko proba, aurretik aipatutako oinarrien arabera.
 - Ekoiztetxearen IFK, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela egiaztatzen duena.
 - Koprodukzio-kontratua edo enpresa eskatzailea gutxienez filmaren % 20aren jabea dela ziurtatzen duen frogagiria.
 - Eskaera egin duen pertsonaren NANA.
 - Gastuen laburpenaren excela.

Laguntza erregistro-ordenaren arabera esleituko da, 4.000 euroko aurrekontua agortu arte.

d2. Bigarren fasean:

- Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak amaierako izendapenak iragartzen dituen egunean irekiko da eskaerak aurkezteko epea, eta irekita mantenduko da helburu horretarako gordetako 3.000 €-ko zenbatekoa agortzen den arte.
 - info@zineuskadi.eu helbidera bidali behar dira eskaerak, honako dokumentuak atxikita:
 - Fakturen kopia eta ordainketen ziurtagiriak.



- Proiektua fase honetan hautatu dutela egiaztatzeko proba, aurretik aipatutako oinarrien arabera
- Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela egiaztatzen duen enpresa ekoizlearen IFKa.
- Koprodukzio-kontratua edo enpresa eskatzailea gutxienez filmaren % 20aren jabea dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Eskaera egin duen pertsonaren NANA.
- Gastuen laburpenaren excela

I. Eranskin Bereziak arautzen ez dituen alderdi guztietan, oinarrietan xedatutakoa jarraituko da.



II. ERANSKIN BEREZIA. 2024KO AWARDS SEASON KANPAINA

Halaber, egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten ekoiztetxeek (gutxienez aurkeztutako lanaren jabetzaren % 20 dutenak) egindako ikus-entzunezko ekoizpenen (film luzeak edo laburrak) sustapenari eta publizitateari ematen zaion laguntza erregulatzen du ZINEUSKADI Elkarteak, 2024ko nazioarteko Award Seasonerako ibilbidean (Oscar Sariak eta European Film Awards).

a. Onuradunak

2. artikuluan jasotakoa betetzen duten eta honako bi baldintzetako bat betetzen duten ikus-entzunezko proiektuak dituzten pertsonak izango dira onuradunak:

- Fikziozko edo animaziozko film luzeak, edo film dokumental luzeak. Nazioarteko banatzaile batek edo sales agent batek aipatutako proiektua Award Seasonera eramateko asmoa duela erakusten duen gutuna.
- Fikziozko edo animaziozko film laburrak, edo film dokumental laburrak. Lanari Holywoodeko Zinema Akademiak argitaratuko duen short listean sartzeari ahalbidetuko dion kalifikazioa.

Horretarako, zinemarako film luzetzat hartuko dira zinema-aretoetan ustiatzera bideratutako hirurogei minutu edo gehiagoko ikus-entzunezko lanak; eta hirurogei minututik beherakoak izango dira film laburrak.

b. Aurrekontua

6.000 €-ko (sei mila euro) aurrekontua bideratuko da.

c. Laguntzaren erabilera

2024ko Awards Seasonera bideratutako publizitate-kanpaina ordaintzeko erabili behar da laguntza, proiektua kalifikatu ondoren eta justifikaziorako dokumentuak aurkeztu aurretik.

Onuradun bakoitzak, gehienez, 3.000 €-ko finantzaketa jasoko du, kanpaina apropos bat diseinatuko duen agentzia espezializatu bat kontratatzeko edo, dagoeneko agentzia bat izanez gero, gauzatutako publizitate-gastuak ordaintzeko. Agentzia espezializatua kontratatzeko behar den laguntza eskainiko du Zineuskadik.

Dagoeneko agentzia bat izanez gero, agentziak online aurkezpen bat egin behar die Zineuskadiko teknikariei, kanpainaren eta aurrekontuan sartutako kostuen berri emateko. Zineuskadik baloratuko du kanpaina aproposa den.

Inola ere ez dira ordainduko bidaien, ostatuen eta/edo ekitaldien gastuak.



d. Emateko prozedura

Oinarriak argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2024 abenduaren 31n amaituko da.

info@zineuskadi.eu helbidera bidali behar dira eskaerak, honako dokumentuak atxikita:

- Proiektuaren izendapenaren froga.
- Ekoiztetxearen IFK, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela egiaztatzen duena.
- Koprodukzio-kontratua edo enpresa eskatzailea gutxienez filmaren % 20aren jabea dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Eskaera egin duen pertsonaren NANA.
- Agentzia bat kontratatuta izanez gero, kanpainaren azalpen-memoria eta gastuen laburpenaren excela.

Goian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaeren iriste-ordenaren arabera emango dira laguntzak, kreditua amaitu arte.

II. Eranskin Bereziak arautzen ez dituen alderdi guztietan, oinarrietan xedatutakoa jarraituko da.

Sinadura digitalaren data eta lekuan,

ZINEUSKADI Elkarteko presidentea.
Aitziber Atorrasagasti Calcedo